



EBAZPENA, 2023ko abuztuaren 3koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zuzendari beraren 2023ko martxoaren 21eko Ebazpena aldatzen duena. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda, 2023/2024 ikasturterako.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko martxoaren 21eko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan 2023/2024 ikasturtean ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda argitaratu zen. Ondoren, 2023ko ekainaren 16an, gora jotzeko errekurtsoren ondorengo behin betiko zerrenda argitaratu zen. Hartan, osorik edo zati batean baietsitako gora jotzeko errekurtsoren ondoriozko aldaketak jasotzen ziren.

Arrate Núñez Oribe izangaia Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrendan agertzen zen 2023/2024 ikasturterako, 2. kideatasunarekin, Arabako Lurralde Historikoko 0103 Ingeleseko zerrendan, 1.kideatasunarekin egin beharrean.

Aipatutako izangaiak aurkeztutako berrikusteko errekurtsio berezia baiesteak esan nahi du Arrate Núñez Oribe andreari dagokiola Arabako Lurralde Historikoko Ingeleseko 0103 behin betiko zerrendan sartzea, 1. kideatasunarekin, eta 2,08 punturekin orotara, dagokion ordenan.

Bestalde, Patricia Camba Pedreira andrea 9,99 punturekin agertzen zen Bizkaiko Lurralde Historikoko 0950 Haur Hezkuntza espezialitatean; bai behin betiko zerrendan, baita gora jotzeko errekurtsioak ebatzi ondorengo behin betiko zerrendan ere.

Akats material baten ondorio da hori, eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak". Patricia Camba Pedreira andreari 0950 Bizkaiko Haur Hezkuntzako behin betiko zerrendan sartzea dagokio, 13,29 punturekin, eta dagokion ordenan puntuazio zuzenaren arabera.

Azkenik, Ane San Miguel Crespo andrea Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrendara berriz sartua izango da 2023/2024 ikasturterako, Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak 2023ko ekainaren 5ean bere administrazio-espeditentea berrikusi eta gero.

Beraz,

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko martxoaren 21eko Ebazpena aldatzea, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda, 2023/2024 ikasturterako. Aurreko aldaketaren ondorioz, bidezkoa da, halaber, 2023ko ekainaren 16an argitaratutako gora jotzeko errekurtsoren ondoren behin betiko zerrendan esleitutako posizioa aldatzea, Arrate Núñez Oribe Arabako Lurralde Historikoko behin betiko 0103 Ingelesa 1. kideatasunarekin behin betiko zerrendan agertuko da, 2,08 punturekin, dagokion ordenan.



Bigarrena.- Aldatzea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko martxoaren 21eko Ebazpena, zeinaren bidez argitaratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda, 2023/2024 ikasturterako. Aurreko aldaketaren ondorioz, bidezkoa da, halaber, 2023ko ekainaren 16an argitaratutako gora jotzeko errekursoak ebatzi ondorengo behin betiko zerrendan esleitutako posizioa aldatzea. Hortaz, Patricia Camba Pedreira Bizkaiko Haur Hezkuntzako 0950 behin betiko zerrendan agertuko da, 13,29 punturekin, dagokion ordenan.

Hirugarrena.- Ane San Miguel Crespo andrea Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrendan sartua izango da berriro, 2023/2024 ikasturterako. Aipatutako itzultze horren ondorioz, bidezkoa da izangaia behin betiko zerrendara itzultzea, 2023ko ekainaren 16an argitaratutako gora jotzeko errekursoaren ondoren. Horrela, Ane San Miguel Crespo andrea 37,50 punturekin agertuko da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako zerrenda hauetan: 0239 Marrazketa, 1502 Merkataritza-antolaketa eta -kudeaketa, 1505 Arte Grafikoetako prozesuak eta produktuak, 1513 Komunikazio-prozesuak eta -bideak, 1516 Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintzako Produktuak eta Prozesuak, 1517 Irudi Pertsonalerako Aholkularitza eta Prozesuak, 1554 Irudi eta Soinuaren Teknikak eta Prozedurak, 1607 Marrazketa Artistikoa eta Kolorea, 1612 Diseinu Grafikoa, 1625 Bolumena eta 1627 Informatika-baliabideak: Diseinu Grafikoa.

Laugarrena.- Ebazpen hau Sailaren webgunean argitaratuko da:
<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-langileak/>

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 3a

Langileak Kudeatzeko Zuzendaria
BLANCA GUERRERO OCEJO